

txinpart

hurtzaro ikastolako aldizkaria 2001 ekaina • 20. zenbakia



HAURTZARO INFORMATZEN

• III. hiruleko irteerak	3
• Korrika	5
• Baserriak ezagutuz	6
• Nestor Basterretxearekin topaketa	6
• 3.mailakoak Urruñan	7
• 6.mailakoak Donostian	7
• Ernio mendiaren erraien bila	8
• DBHko 2. zikloa Artikutzara	8
• Migel Angel Mintegi idazlea ikastolan	9
• Bizi dezagun aniztasuna	9
• Pilota eta herri kirol topaketak	10
• Asisko Urmeneta DBHko ikasleekin	10
• Iban Retegi ikaslea xakeko jokalaria bikaina	11
• Maitane Azpeitia atletismoko txapelduna	12
• "Klik" solidarioa interneten	13
• Aste Santuan ere pintaketan	13
• Karaez	14
• Lehendakari aldaketa	15
• Eskerrik asko, Egaña!	16
• DBH 4. mailako ikasleak ikastolaz kanpo ere ikasten	16

HATZAK BETE LAN

• Bazkari garaia-ikaste garaia	17
• Mutturrak (eta eskuak) saltsan	17
• Osasunarentzat barazkiak onak	18

IKASTOLA EGUNA

• 4 urtekoak lan eta lan	23
• Sendabelarrak	24
• 4. mailakoen hainbat ibilaldi eta ekintza	25
• Bizitza motza da	26
• Eskarne Irastorza ikastolan	27
• Kopla handia	27
• Bertsoa	27
• Bertso eskola plazara	28
• Gero eta gehiago maite dut naturarekiko harremana	29
• Tren museora bisita	30
• Teknologia proiektuak DBHn	31
• Uf! estatistika Haurtzaron	31
• Afganistango emakumeen egoera	32
• Zientzia tailerra	33
• Semaforoa, ikasleen aldizkaria	33

GURASOOK JAKIN DEZAGUN

• Elkarriketa Jokin Garciarekin	34
• Haurra eta adiskidantza	36

GU ERE KAZETARI

• Juan Kruz Igerabiderekin elkarriketa	37
--	----

NAHASTE BORRASTE

• The dragon	38
• Laburpen tentatzailea	39



3. HIRUHILEKO IRTEERAK

HAUR ESKOLA: 2-3 URTE

NOIZ	NORA	HELBURUA
MAIATZA	ORERETAKO AZOKA	Elikagaien proiektuari lotuta: • Salmenta ezagutu • Produktuak antzeman edota ezagutu • Topoan ibili.
MAIATZA EKAINA	BASERRIAK	Elikagaien proiektuari lotuta: Produktuen jatorria: • Behiak jezten ikusi • Baratzak

HAUR ESKOLA: 1-2

ITURRIOTZ

NOIZ	NORA	HELBURUA
EKAINA	BASERRI BATERA	Baserriko abereak ikusi baserriko giroan
EKAINA / UZTAILA	IKASTOLARA	2 urtekoen gelak ezagutu

HAUR ESKOLA: 1-2

KARRIKA

NOIZ	NORA	HELBURUA
MAIATZA / EKAINA	ARRASKU BASERRIRA OIANZABAL BASERRIRA	Baserriko abereak ikusi baserriko giroan
UZTAILA	IKASTOLARA	2 urtekoen gelak ezagutu
UZTAILA	ERREKARA	Uretan bainatzera
UZTAILA	IRAKASLE BATEN BASERRIRA	Ikasturte bukaerako txango berezia ospatzera: jai giroa, trikitixa, emanaldia, zelaian bazkaldu.




ETAPA/ZIKLO: HAUR HEZKUNTZA

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
H.H. 1	MAIATZAK 10	HERRIRA	ZENBAIT ERAIKUNTZA ETA TRAFIKOKO SEINALEAK EZAGUTZEA
H.H. 1	MAIATZAK 22	ALAMANDEGI BASERRIRA	BASERRIKO ANIMALIAK ETA LANDARE ETA BARATZEA IKUSTEA
H.H. 1	EKAINAK 6	GUADALUPERA	ELKARREKIN ONGI PASATZEA
H.H. 1	EKAINAK 12	GLADIS ENEARA	ELKARREKIN ONGI PASATZEA
H.H. 2	APIRILAK 27	HONDARRIBIRA	NESTOR BASTERRETXEAREN ARTELANAK IKUSTEA
H.H. 2	EKAINAK 1	GUADALUPERA	EGUN PASA BAT EGITEA
H.H. 2	EKAINAK 15	ERREKARA	URAREKIN GOZATZEA
H.H. 3	MAIATZAK 21	DONOSTIARA	ZINEAN PELIKULA BAT IKUSTEA
H.H. 3	MAIATZAK 23	BIDEGORRIRA	BARATZEAK IKUSTEA
H.H. 3	MAIATZAK 24	AIZATE ETXERA	ERLAUNTZAK IKUSTEAK
H.H. 3	MAIATZAK 30	MENDIBILERA	ERAIKUNTZAK IKUSTEAK
H.H. 3	EKAINAK 1	DONOSTIARA	KURSAALA IKUSTEA ETA EGUN PASA GLADIS ENEAN
H.H. 3	EKAINAK 14-15	LARRAULERA	ELKARREKIN GAU BAT PASATZEA

LEHEN HEZKUNTZA

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
1.	EKAINAK 11/12/13	BEIZAMARA	HARREMANAK ETA AUTONOMIA SENDOTZEA
	EKAINEAN	SORONDORA	LANDAREAK BEHATZEA
2.	EKAINAK 11/12/13	ASTIGARRAGARA	HARREMANAK SENDOTZEA
	EKAINAK 11/12/13	AZPEITIRA	GARRAIOAK EZAGUTZEA
	MARTXOAK 9	HONDARRIBIRA	GARRAIOAK EZAGUTZEA
3.	EKAINAK 1	URRUÑARA "FLORENIA"	INGURUNEAN LANTZEN ARI DIREN GAIA LANTZEA
4.	APIRILAK 25	SAN MARKOSERA	INGURUA EZAGUTZEA
	MAITZAK 18	ARIZMENDIRA	LANDAREAK EZAGUTZEA
	MAIATZAK 25	DONOSTIARA	MONUMENTUAK EZAGUTZEA
	MAITZAK 31	DONOSTIARA	MUSEOAK BISITATZEA
5.	EKAINAK 11/12/13	GASTEIZERA	ERAKUNDE POLITIKOAK IKUSI ETA HIRIAREN ESTRUKTURA AZTERTZEA
	MAIATZAK 8/9/11	ALTZIBARKO IBAI ONDORA	EKOSISTEMA AZTERTZEA
	MAIATZAK 22	OIARTZUNEN PILOTA TOPAKETAK	PILOTAREN SUSPERTZEA EDO MANTENTZEA BESTE ZENTROKO IKASLEEKIN HARREMANAK IZATEA
6.	MAIATZAK 8	SAN MARKOSKO ZABORTEGIRA	FUNTZIONAMENDUA EZAGUTZEA
5. eta 6.	MAIATZAK 8	UDALETXERA	LEXOTI TXAPELKETA
6.	EKAINAK 13/14/15	ETXARRI LARRAUN	IKASLEEN ARTEKO HARREMANAK INGURUNEA EZAGUTU ETA AZTERTZEA



DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
2. MAILA	APIRILAK 2	LASARTERA	BALOREEN LANKETA: ARRAZAKERIAREN TOPAKETA.
2. eta 2. MAILAK	MAIATZAK 4	ONBIDE ZINEMARA	ETIKA: BALOREEN LANKETA
1. MAILA	MAIATZAK 18	LEZORA	HERRI KIROLAK: BESTE IKASTETXEKIN TOPAKETA
1. MAILA	MAIATZAK 13/14/15	BARRIARA (ARABA)	IKASTURTE BUKAERAKO IBILALDIA
2. MAILA	MAIATZAK 13/14/15	LIZARRARA (NAFARROA)	IKASTURTE BUKAERAKO IBILALDIA
3. eta 4. MAILAK	MARTXOAK 29	ARTIKUTZARA	INGURUA EZAGUTU ETA ZIKLOKO HARREMANAK SENDOTU
4. MAILA: TEKNO-TAILERRA	MAIATZAK 4	ORMAIZTEGIKO IRIZAR LANTEGIA IKUSTERA	ENPRESA BAT ETA PROZESU INDUSTRIALA EZAGUTU
4. MAILA: KULTUR KLASIKOA	MAIATZAK 4	IRUÑERA	ERROMANIZAZIOAREN AZTARNAK IKUSTERA
4. MAILA: BIOLOGIA GEOLOGIA	MAIATZAK 4	AIKO HARRIRA	PARKE NATURALAREN FAUNA, FLORA ETA GEOLOGIA AZTERKETA
3. MAILA:	EKAINAK 13/14/15	EGINORA (NAFARROA)	IKASTURTE BUKAERAKO IBILALDIA
4. MAILA:	EKAINAK 11/15	COMARRUGARA (BARTZELONA)	IKASTURTE BUKAERAKO IBILALDIA



KORRIKA





BASERRIAK EZAGUTUZ



Bertako baratzea, landare eta abereak ikusi genituen, horien artean oilo eta untxi bereziak. Kabi bat arrautz eta guzti ere ikusi genuen.

ZE ONGI PASA GENUEN!

3 urteko neska-mutilak



NESTOR BASTERRETXEAREKIN TOPAKETA

Apirilaren 27an, Nestorrek Hondarribian duen etxea ikustera joan ginen. Han bera ezagutu eta bere artelanak ikusteko aukera izan genuen; gizon hurbila eta gozoa sumatu genuen, eta bere obra ulertzeko esplikazio ugari eman zizkigun. Eta bukatzeko, sorpresa galanta!

Berak egindako litografia bat Haurtzaro Ikastolarentzat oparitu zigun. Berak zioenez, pertsonen ideia argi eta ilunetan pentsatuz egin zuen.

Idazkaritzan dago zintzilikatua ikusi nahi baduzue.

4 urteko neska-mutilak





3. mailako ikasleak Lapurdin izan dira, Urruñan hain zuzen ere. Bertan dagoen "Florenia" parkeaz gozatzen. Ingurunean landareen munduan buru-belarri jardun eta gero, gai honetan zeinen jantzita dauden erakusteko aukera paregabea izan zuten joan den ekainaren 1ean.

Bertan zeuden landareak aztertu ondoren, zelai eder batean bazkaltzeko eta tailerretan parte hartzeko aukera ere ez zuten alferrik galdu.



6. mailakoak ZIENTZIA MUSEOA

bisitatu ondoren:

IKUSI AL DUZU... indar magnetikoena, ordenagailuak...?

ZORAGARRIA!

BAI ONDO PASA DUGULA!

AZKENEAN, Eduardo Txillidaren

"Haizearen orrazea" ezagutu dugu.

A ZER NOLAKO haize fresko eta erakargarria!





ERNETO

mendiaren
erraien
bila



DBH
2



DBHko 2. zikloa ARTIKUTZARA



DBH 2. zikloko ikasle eta irakasleak Artikutzara joan ziren, martxoaren 29an. Egun horretan, ingurua ezagutzeaz gain, ziklokoen arteko harremanak sendotzea zuten helburu.



MIGEL ANGEL MINTEGI IDAZLEA, DBH 3. MAILAN

DBH 3. mailako ikasleek idazle honek idatzitako bi liburu irakurri dituzte: *Coca-Cola Erdi Aroan* eta *A zer gaupasa*. Azkeneko hiru hilabete honetan liburu horien aita ezagutzeko aukera izan dute, Migel Angel gure ikasleengana etorri baitzen martxoaren 28an. Oso elkarriketa goxoa eta esperientzia atsegina izan zuten. Eskerrik asko berari guztion partetik.


BIZI DEZAGUN ANIZTASUNA

Hautzaro ikastolako DBH 2. MAILAKOEK, Erljio-Etikan bideratutaren Gipuzkoako SOS Arrazakeriaren *Bizi dezagun aniztasuna* kanpainaren izenean antolatutako topaguneetan parte hartu dute.

Lau kultura hurbiletik ezagutzeko aukera aparta izan dute :

MAGREBEKOA,
LATINOAMERIKAKOA, AFRIKA
BELTZEKOA eta IJITOENA.

Topaketa hauetan lortu nahi izan dena da gure artean bizi diren beste kulturetako jendearekin harremanetan jartzea. Harreman hauen bitartez, beste kulturetako pertsonekin elkartzen gaituena, bereizten gaituena baino garrantzitsuagoa dela jabetzea bilatu dugu, eta, ahal den neurrian, estereotiporako eta bazterketarako joerak haustea.





PILOTA ETA HERRI KIROL TOPAKETAK

Ikaspilotatik bultzatuta, badira zenbait urte Haurtzarok parte hartzen duela proiektu polit hone-tan: 5. mailako ikasleak pilota topaketetan eta DBHko lehen mailakoek Herri kirolen topaketetan.

VI. pilota topaketak izan dira hauek, eta maiatzaren 22an egin dira; beste urteetako egitura mantendu dute:

- ▶ Lehenengo zatian, 5. mailako neska-mutil guztiak hainbat jokotan aritu dira: txokotan, kiniela palaz I XI, erdian biok, kontaketa lurrean... izeneko jokoetan.
- ▶ Bigarrenengo zatian, ikastetxe bakoitzeko 5 bikote (5 neska eta 5 mutil) lehiatu dira.

Lehenengo zatia frontoi bat baino gehiagotan egin da: Haurtzaroko, Madalensoroko eta Errenteriako frontoietan. Bigarren zatirako, ikastetxe guztiak Madalensoron elkartu dira.

Jokoen ezagutza, euskararen erabilera, elkarren arteko errespetua... bultzatzea bilatzen dute topaketa hauek, eta noski, egun alaia pasatzea gurea den kirol honen inguruan.

II. HERRI KIROL EN TOPAKETA, berriz, maiatzaren 18an, Lezoko Carlos Saldise plazan egin zen.

Topaketaren egiturak parte-hartze zabala eskaintzen du, eta taldeak 15 eta 24 partaide bitartekoak izan dira, DBHko neska-mutilez osatuak.

Bertan 5 joka-moldetan aritu dira:

- ▶ Lokotxak, txikorta. ▶ Zakua eramatea.
- ▶ Giza frogak. ▶ Lasterketa.
- ▶ Soka tira.



Sortutako giroak aipamen berezia merezi duela uste dugu. Festa, jolasa, txaloak, nagusi izan dira lehiakideen artean, eta kirola egiteak sortzen duen atsegina dastatzeko aukera aparta izan dute bertan bildutakoak.

Hau guztia borobiltzeko, Haurtzaroko talde batek Astigarragan, ekainaren 9an jokatu den finalean parte hartzeko txartela eskuratu zuen.




ASISKO URMENETA DBH-ko IKASLEEKIN

Asisko Urmenetaren ogibidea komikiaren inguruan mugitzen da. Kukuxumuxu taldeko sortzaileetarikoa marrazkilaria izatez aparte *Napartheid* komikiaren sortzailea da.

Martxoko hilabetea Haurtzaro Ikastolan izan zen, DBHko ikasleei komikiaren eta honen inguruko zahaztasun guztiak agertzen (istorioa, egileak, elkarrekin, prozesua kaleratua izan arte...)

Bi hitzaldi eman zituen, eta bietan, ikasleek asko disfrutatu eta ikasi zuten.



IBAN RETEGI COMAS IKASLEA, XAKEKO JOKALARI BIKAINA

Iban Retegi Comas Lehen Hezkuntzako 5. mailako xakelari trebea du. Gaur egun 10 urte ditu, eta Ergoien auzoan bizi da. Aita oiartzuarra du eta ama, berriz, nafarra. Hiru senideetatik gaztetxoena da bera.

Galdetu diogunean noiz eta nola sortu zitzaion xakearekiko afizioa, zera adierazi digu: zazpi bat urtetan bere bigarren anaiak, Iñakik hain zuzen ere, xakean jokatzen erakutsi omen zion. Iñakiri, berriz, Nafarroako lehengusu batek erakutsi omen zion. Baina gure Ibanek ikasi bezain agudo, bere anaiari irabazten zion, bere dohain bereziak erakutsiz.


Gaur egun, asteazkenetan Donostiara joaten da, eta bi bat orduraz entrenatzen da bertan dagoen Euskadiko Xake eskolan. Gero, larunbatetan eta igandeetan xakeko txapelketetan parte hartzen du, eta dagoeneko ez du kontuan zenbat txapelketa irabazi dituen. Azkenekoa, 1999ko Euskadiko txapelketa izan omen zen.

Ibanek dio xakea oso kirol entretenigarria dela eta, era berean, dibertigarria. Eta batik bat azpimarratu du buruak lan asko egiten duela kirol honetan.

Aitari ere erakutsi omen dio xakean jokatzen, eta gaur egun bere aurka egiten omen ditu partida ugari.

Bukatzeko esan digu, bere idolo nagusia Kasparov dela. Bere mailara iristea omen da bere helburu nagusia.

Txinpartetik gure zorionik beroenak Ibani eta aurrera jarrai dezala!!



*Iban Retegi Comas. 2 000ko uztailean
Oropesa del Mar-en (Alakant)
antolaturiko Espainiako
XAKE TXAPELKETAN*

Iban Retegi Comas es un jugador de ajedrez que estudia en 5º de Primaria en Haurtzaro Ikastola. Practica el ajedrez desde los siete años, edad en la que su hermano Iñaki le dio las primeras lecciones de ajedrez. Enseguida demostró sus dotes en este deporte y actualmente acude todos los miércoles a Donostia a la Escuela de Ajedrez. Los fines de semana participa en diferentes campeonatos que se celebran por toda Euskal Herria. Ha ganado numerosos campeonatos, y entre otros ha sido campeón de Euskadi en 1999.

Su idolo es Kasparov y espera poder llegar a su nivel.

Desde Txinpart queremos apoyar a Iban para que sus sueños puedan llegar a ser realidad en un futuro próximo.



MAITANE AZPEITIA, ATLETISMOKO TXAPELDUNA

Maitane Azpeitia Albarez LH 6. mailako kirolaria dugu. Duela urte batzuk, zortzi urte zituela, Haurtzaroko Atletismo taldean eman zuen izena, aitzak animatuta. Izan ere, Maitanek oso ongi korri egiten zuen ordurako, eta animatu egin zen, kirol batean hasteko asmotan baitzebilan.

Izena eman orduko hasi zen Bixente Artola eta Periko Sanroma entrenatzaileekin Ikastolako jolas tokian korri eta salto egiten.

Gaur egun, astean hiru egunetan entrenatzen da, eta egun horietan 19:00etatik 20:00etara aritzen da jo eta su prestatzen.

Eta egindako lana dagoeneko ematen hasi da bere fruitua: izan ere, Gipuzkoa mailan egindako txapelketan jaso ditu bere lehen dominak:

- Gipuzkoako txapelduna gelditu da altuera jauzian. Egun horretan egindako marka 1,32 metrokoa izan zen, eta horrek eman zion lehen saria. Nolanahi ere, bere markarik onena 1,35 omen da, eta hori iaz lortu omen zuen, Benicarlón, joan den udan egindako atletismoko kontzentrazioan.
- Hirugarren saria eskuratu du 150 metro hesietako modalitatean.
- Hirugarren saria luzera jauzian, 4 metro eta 30 zmk markarekin.
- Eta bigarren saria, ekipoka, erreleboetako modalitatean.

Une honetan, Maitane atletismoan jarraitzeko irikitan dago, aieka batetik ondo pasatzen duelako, eta bestetik, lagun berriak ezagutzeko parada duelako.

Zorionak, neska, eta jarraitu bide horretatik!!



Maitane Azpeitia Albarez, deportista de 6º de Ed. Primaria anima al resto de alumnas a que practiquen algún deporte. Ella practica el Atletismo. Este curso ha logrado el primer puesto en el Campeonato de Atletismo de Gipuzkoa en la modalidad de salto de altura, así como otros más. Comenzó su andadura deportiva a los 8 años de la mano de Bixente Artola y Periko Sanroma entrenadores de atletismo de la Ikastola y en estos momentos disfruta de su elección. Piensa que se pasa muy bien practicando algún deporte y que si es de tu gusto muchísimo mejor.



"KLIK" SOLIDARIOA INTERNETEN



Haurtzaro ikastolako internauta guztientzat mezua:

INTERNETek eskaintzen dituen aukera guztien artean, mundua hobetzeko lan egiten duten ONGek elkarrekin komunikatzeko bidea errazten dute. Zenbait lekutan dagoen egoera aldatzeko eta desorekak arintzeko teknologia berriei baliatzen diren bi helbide hauek Txinpart aldizkariara ekarri ditugu.

→ **bi orrialde hauek kontuan izan**

► "The hunger site": www.thehungersite.com

► "Canal solidarioa": www.canalsolidario.com

Orrialde hauetan "klik" egiteagatik bakarrik (egunean behin gehienez), herrialde behartsuek laguntza jasotzen dute.

Unitek Nations World Food Programek (WFP) bultzatu du honelako lan solidarioa egiteko aukera.

Egoera larrian bizi diren pertsonak eta gure herritik urrun aurkitzen diren lekuetako berriak ezagutzeko, bertan sartzeari aholkatzen dizuegu.

ASTE SANTUAN ERE PINTAKETA LANEKIN JARRAITU DUGU IKASTOLAN

Guztiok dakigun bezala, Gabonetako oporretan Haur Hezkuntzako hamabost bat guraso bildu ziren euren seme-alaben gelak margotzeko. Horretarako, urrian egin ziren guraso bileretan aurkeztu zen egitasmo berria, eta berehala, guraso talde batek eman zuen izena.

Esperientzia berri hau primeran ateratzen zenez, Aste Santuan pintaketa lanekin jarraitzeko proiektuari eutsi genion Ikastolan. Horrela, Lehen Hezkuntzako gurasoei dei berezia egin zitzaion pintaketa lanetan jarduteko, eta egindako deia zortzi gurasok eta lau ikaslek erantzun zioten.

Horrela, Aste Santuko hiruzpalau egunetan bildu ziren eta Lehen Hezkuntzako 1., 2., 4. eta 5. mailako zazpi gelatako apalak eta bankuak margotu genituen. Oso gustura aritu ginen guztiok, eta esperientziak merezi duela ez dugu zalantza, azken finean, gure seme-alaben gelek asko irabazten baitute horrelako aurpegi garbiketa batekin.

Mila esker guztioi!!



Siguiendo con el proyecto de las pasadas Navidades, esta Semana Santa un grupo de padres-madres de Ed. Primaria se reunió en la Ikastola para pintar las aulas de sus hij@s. Para ello contaron con la inestimable ayuda de José Ostolaza y en tres-cuatro días, terminaron con el proyecto que había propuesto el Consejo Rector de la Ikastola.



HAURTZAROkO DBH 2. ZIKLOKO IKASLEAK KARAEZ HERRIAN (BRETAGNIA)



Ekainaren bukaera honetan, Haurtzaro ikastolako 18 ikasle eta 2 irakasle laugarren urtez Karaez herrira joan dira, 10 eguneko egonaldia egitera. Hauxe da egonaldiaren honen nondik norakoa: 1996/97 ikasturtean eman genion hasiera Haurtzaro Ikastolan Karaez herrira antolatutako egonaldiei. Ikasturte horretan, Haurtzaron frantsesa ikasten zuten 25 ikasleek aukera izan zuten astebeteko egonaldia bertan egiteko, eta, bide batez, ikasturtean zehar ikasitakoa praktikan jartzeko.

1997/98an berriro errepikatu genuen esperientzia, eta berriro beste 25 bat ikaslek parte hartu zuten astebeteko egonaldian.

1998/99 ikasturtean, proiektuan nobedade ugari izan genituen: alde batetik, gure ikasleek, 23 guztira, eta 2 irakaslek 10 eguneko egonaldia egin zuten Karaezko familien artean, ekainaren bukaeran. Eta DBH 2., 3. eta 4. mailako ikasleek parte hartu zuten. Era berean, ikasturte horretan Bretaniako DIWAN

ikastolako bigarren hezkuntzako 25 ikasle etorri zitzaizkigun, eta gure familien artean hartu zuten ostatu. Astebeteko egonaldia egin zuten gure artean, eta Euskal Herria ezagutzeko parada izan zuten, baita gure ohiturak ere.

laz kale egin genuen. Izan ere, horrelako proiektuek hausnarketarako tarte ere behar izaten dute, eta gurean iazko ikasturtea izan zen horretarako.

Aurten, berriz, eraberriturik, martxan jarri dugu egitasmoa, eta dagoeneko prest dago guztia. Ekainaren 24an aterako dira Oiartzundik DBH 3. eta 4. mailako 18 ikasle, bi irakasleekin. Etorri, berriz, uztailaren 3an egingo dira, hamar egun igaro ondoren.

Oso esperientzia aberasgarria izango da ikastolako ikasleentzat; izan ere, bai frantsesez mintzatu ahal izango direlako eta baita beste kultura eta ohitura batzuk ezagutuko dituztelako ere.

El curso 1996/97 comenzamos con el programa de estancias de una semana en Karaez (Bretaña), pueblo hermano con Oiartzun. 25 alumn@s de la ESO participaron en aquella ocasión, realizando una estancia de una semana entre las familias que nos acogieron. Los dos cursos siguientes se repitió la experiencia y este año volvemos de nuevo a Karaez: 18 alumn@s de 3º y 4º de la ESO realizarán una estancia de 10 días en las familias de Karaez, para poner en práctica el francés aprendido a lo largo del curso.



HAURTZARO IKASTOLAN LEHENDAKARI ALDAKETA IZAN DA AURTENGO IKASTURTEAN

Denok dakigun bezala, Ikastolak duela hiru hamarkada guraso euskaltzale sutsuek sortutako erakundeak dira. Haurtzaro Ikastolako kasuan ere horrela gertatu izan da. Duela hogeita hamalau urte, Oiartzungo hainbat familia bildu ziren euskara eta Euskal Herriko kultura bultzatu nahian, eta horretarako, Ikastola abian jarri zuten.

Urte hauetan guztietan gurasoen partehartzea ezinbestekoa izan da proiektu hau aurrera atera ahal izateko. Eta gurasoen partaidetza ziurtatuko duen organoak antolatu izan dira bertan. Kontseilu Erretorea dugu Haurtzaro Ikastolako organo gorena, Batzar Nagusiaren ondoren. Eta bertako partaideak langileak eta gurasoak dira. Gurasoen ordezkari nagusia Lehendakaria dugu, eta bera da, hain zuzen ere, Ikastolako ordezkari garrantzitsuena.

Azkeneko lau ikasturteetan Jokin Garcia gurasoa izan da Haurtzaroko lehendakaria, eta aurren bere kargua utzi eta Arantza Mantrolak hartu du, ilusioz beterik.

Jokin García Erize lehendakari de Haurtzaro Ikastola en los últimos 4 años ha dejado el cargo y en su lugar ha sido nombrada nueva lehendakari Arantza Manteola Odriozola. Arantza se encuentra llena de ilusiones y proyectos con respecto a la Ikastola. No duda en animar al resto de padres-madres para que se acerquen al centro a participar en los diversos grupos que ya se encuentran en marcha.






ESKERRIK ASKO, EGAÑA!

Maiatzaren 28an gurekin izan genuen Zarauzko txapelduna. DBHko 1. mailako ikasleekin gustura aritu zen kontu kontari eta bertsotan Andoni Egaña.

DBHn bertsoarekin fuerte ari dira borrokan ikasleak eta zaletasuna ere piztu dugu askorengan. Hor daude eskolarteko aurtengo txapelketak utzi dituen arrastotak. 50 ikaslek eman zuten izena bertso idatzietan parte hartzeko eta Ekiñek txapela lortu, gainera. Batbatekoan ere lorpen handiak eskuratu dituzte gure bertsolari txikiek.

Eta Egañaren bisitak eta horrelakoek asko laguntzen digute ikasleengan zaletasuna suspertzen eta gure proiektuari eusten. Ikasleek gaiak, puntuak eta lau oinak jarri, eta Andonik kantatu. Txundituta gelditu ziren ikasleak.

Bukaeran, bertsotan jarraitzera animatu zituen ikasleak, benetan gozatu egingo dutelako.




ESKERRIK ASKO, EGAÑA!!

DBH 4. MAILAKO IKASLEAK, IKASTOLAZ KANPO ERE IKASTEN




▲ DBH 4. mailako teknologia arloko ikasleak IRIZAR autobus enpresaren fabrika bisitatu genuen. Han, autobusak nola egiten zituzten ikusi eta enpresa baten ikuspegi orokorra ezagutzeko aukera izan genuen.



► Kultura klasikoa tailerraren jardueren artean, Iruñeara ibilaldia egitea ere bazegoen, argazki honetan ikus dezakegun bezala. Bertara Erromanizazioaren aztarnen bila joan ziren.





BAZKARI GARAIA - IKASTE GARAIA

Goiz osoa eman dugu jostatzen. Arraskuraino igo gara gaur, eguraldi ona egiten baitzuen, eta neka-neka eginda hementxe gaude indarberritzen. Koro eta Idoia, gure irakasleak, ez dira argazkian agertzen, baina gertu daude. Bestela, nola uste duzue ikasiko genuela hain txukun jaten? Eta bakarrik jaten? Eta denetarik jaten?... Pazientzia ederra! Baina ez al da egia oso ikasle onak garela?

"MUTTURRAK (ETA ESKUAK) SALTSAN"



Handitzen ari garen heinean, geroz eta ekintza mardulagoak egiten ari gara. Azken bolada honetan janari kontuekin gabilitza, eta oraingoan laranja-ura egin dugu, horrek berarekin dakartzan ardura guztiak gure gain hartuz: lehenik topoa hartu, Errenteriako azokara joan, eta, hura bisitatu ondoren, laranja jak erosi ditugu. Ondoren, berriz ere topoa hartu


(bai gustura aski!) eta ikastolara itzuli gara. Bertan eman dugu azken pausoa, zumoa egiteko tresnak (eskuzkoak eta elektrikoak) eskuratu bezain laster: riki-raka-riki-raka, laranja jak jira eta bira, eta... hara non hasi den zumoa ateratzen! Emaitzak (zumoak berak, eta gure gaitasunak noraino iristen diren eza-gutzea) merezi izan du.

2-3 urtekoak



OSASUNARENTZAT BARAZKIAK ONAK

OSASU NARENTZAT BARAZKIAK JATEA
BEHARREZKO A ETA EGOKIA DA



BARAZKIEN ARTIAN BAZUETAN SUSTRAIAK
JATEN DITUGU BESTE BATZUETAN ZURTOINAK
ETA BESTE BATZUETAN HOSTOAK, BENETAN
HAU BAI DELA GAUZUK, ONDO
APROBETXATZEKO MODUA!

5 URTEKOAK

haurtzaro ikastola

IKASTOLA EGUNA

Ikastola Eguna ospatu da Haurtzaro Ikastolan

Aspaldiko ohiturari jarraituz, Ikastola Eguna ospatu genuen ekainaren 10ean, eta urtero bezala, egun osoan izan zen ikuskizunik eta zertan parte hartu. Nolanahi ere, oraingo honetan eguraldiak ez zigun askorik lagundu.



Aurtengo egitaraua ere herrikoia zen eta guztiok parte hartzera bultzatzen zuena. Hona hemen xehetasun guztiak: Goizeko 10:30ean eman zitzaion hasiera ospakizunari. Partaide guztiak Ikastolan bertan elkartu ondoren, suzirik adierazi zuten festaren hasiera. Berehala, ikastolako trikitilarien soinu alai entzuteko parada izan genuen bertara hurbildu ziren guztiak, beraien emanaldia-ekin gozatuko baitziren Ikastolako txokoak. Jarraian, ikastolako irakasleek antolatutako tailerrak izan ziren Ikastolako txikientzat. Haurtzaro Mendi Taldekoek GINKANA MUNDIALA antolatu zuten Lehen Hezkuntzako eta DBHko gainontzeko ikasleentzat, baina eguraldi txarra zela medio, aldatu behar izan genuen gure egitaraua. Ikastolako txikientzat arrain harrapaketa egin ahal izan genuen. Baina Ginkana bertan behera utzi behar izan genuen.

haurtzaro

IKASTOL



11:30ean, ekintza estraeskoletako taldeen txanda izan zen Madalensoro frontoian. Bertsolariak, txistulariak, dantzariak (dantza garaikidea, euskal dantzak) gimnastika erritmikoak eta pandero joleak eta trikitilariak ikasturtean zehar ikasitakoa erakusteko irrika bizian zeuden, eta tarte hori aprobetxatuz, beren emanaldia eskaini zuten.

Ordubata eta erdietan, berriz, Usue Juanesi omena egin zitzaion. Une hunkigarria benetan.

Jarraian DBH 4. mailako ikasleek azken agurra eskaini ziguten.

Ondoren, Bixente Artola, Antton Ezkerro eta Arkaitz Goikoetxeari aipamena egin zitzaion.



Ordubiak aldera bazkaria izan zen, eta 300 bat lagun bildu ginen, giro apartan. Bazkalondoa, Modesto musikariaren ordezkoa bere piezak jotzen hasi zen, bertako giroa alaitzeko, eta ez dago dudarik bertako jendea mugitzea eragin zuela.

Arratsaldeko 16:00etan Ikastolako ttiki eta ez hain ttikientzat hainbeste miretsitako pailazoan txanda izan zen. Izan ere, Nafarroatik zuzen zuzenean etorrita Kiki, Koko, Moko eta Flax pailazo ospetsuak ikusteko parada izan genuen.

Ondoren, Ikastola Egunerako ateratako errifon zozketa egin zen, eta Jon Olaziregi ikasleari tokatu zitzaion mendiko bizikleta zoragarria.

Eta egunari amaiera egoki bat emateko, berriz ere aspertu arte, dantzaldia izan zen, ttiki eta helduentzat.

Eta gainera, bertan zirenen egarriak eta asetzeko asmoz, DBH 3. mailako ikasleek taberna antolatu eta martxan jarri zuten, terraza eta guzti.

Bene-benetan egun zoragarria pasatzeko aukera izan genuen Ikastolako ikasle, langile eta gurasoak. Eskerrik asko guztioi!!



A E G U N A



El día 10 de junio celebramos el día de la Ikastola. Para ello contábamos con un programa de lujo, con el que pudimos disfrutar de un día inolvidable para todos los componentes de la Ikastola: alumnos, padres-madres y personal, aunque el tiempo no nos acompañó como es debido.

De todas formas, los diferentes actos organizados por el grupo de festejos de la Ikastola brillaron con luz propia: la muestra de las actividades estrescolares... Cabe destacar también la actuación de los payasos navarros Kiki, Koko, Moko eta Flax, que deleitaron a los más pequeños de la casa.

No podemos pasar por alto tampoco el sentido homenaje a Usue Juanes, profesora del centro que falleció este curso escolar. Así como las menciones que se realizaron a Bixente Artola, Antton Ezkerro y Arkaitz Goikoetxea, responsables de las actividades estraescolares de la Ikastola durante muchísimos años.

Para terminar, mención especial merece el agur tributado a los alumnos de 4º de ESO que han finalizado este curso sus estudios.


Por último, destacaremos como novedad el sorteo que se realizó de una montain bike y que fue agraciado Jon Olaziregi, alumno de la Ikastola.



haurtzaro ikastola

IKASTOLA EGUNA

Ikastola Eguna ospatu da Haurtzaro Ikastolan





4 URTEKOAK LAN ETA LAN

HIRU HILABETE KONJETAN 4 URTEKO NESKA - MUTILAK GAUZA ASKO
IKASI ETA EGIN DUGU.



LAUDARE ETA TXORRIEN IZENAK IKASI
HEMEN IKUS DAITEKE GUK
ANTOLATUTAKO ERAKUSKETA



OGIA NOLA EGITEN DEN IKUSTERA ERE JOAN
GARA ONDOKEN GUK EGIN ETA JAN EGIN DUGU.
BAI GOXOA ZEGUELA!



SENDABELARRAK


SENDA BELARRAK
Bidegintza joan ginen eta beharrez
erabaki eta guretzat baliu izan duten ibar
gintuen.



BOST
ORRIA


IDO BELARRAK: frutuetatik erabiltzen
PARETA BELARRAK: gibelak sendatzen
KANTIM BELARRAK: bariaz eta erabiltzen
gintzen.

BOST ORRI BELARRAK: afektatzen dituzte
MENDA BELARRAK: gintzen erabiltzen
XAGU BELARRAK: hanturak sendatzen



PARETA
BELARRA

Mafamotekin senda beharrez ibar



IDO BELARRA



MENDA

PLANTIA




4. MAILAKOEN HAINBAT IBILALDI ETA EKINTZA

Gustukoak eta benetan interesgarriak izan dira aurten 4. mailan egin ditugun ibilaldi eta ekitaldiak: Gure herria sustraiaetik ezagutzeko eginiko txangoak:



- ▶ Torresko haitzulora joan ginenekoa.
- ▶ Andrearriagako Hilarria ikusiz, Gurutzera.
- ▶ Udala bisitatuz, alkatearekin izandako elkarrizketa. Bertan herria aztertu ahal izan genuen eta, bide batez, informazioa lortu.



Hauetaz gain beste batzuk ere egin ditugu, tartean ipuin egile batekin izandako solasaldia. Egundokoa izan da ipuinegile batekin elkarrizketatzeko izan dugun aukera. Ezin hobea.

Bere olerki batzuk errezitatuz eman genion "ongieterria". Nahi hainbat galdera egin genizkion eta guztiak erantzun zizkigun. Txisteren bat ere tartekatu zigun eta zenbait hitz-joko prestatuta ekarri zituen eta jolastu ahal izan ginen.

Bera: ipuin egilea-idazlea, bertsolaria-gai jartzailea...

Eta gure Ikastolako irakaslea.

**EDERKI PASATU GENUEN:
ESKERRIKASKO, ANTON**





BIZITZA MOTZA DA BEREZ, EZ EZAZU MOTZAGOA EGIN

Aupa, nire izena Iraia da, 15 urte ditut, eta momentu honetan Oiartzun izeneko herri txiki batean bizi baiz, nire familiarekin. Lehen-dabizi familia aurkeztuko dizuet. Gurasoak Mikel eta Amaia eta anaia, berriz, Ibai. Nik kontatuko dizuedan istorioa niri gertatua da, 14 urte nituenean hain zuzen, denek entzuna izango duzue, orain hain modan dagoen anorexia. Modan dago, baina gaixotasuna da, eta gaixotasun guztiak txarrak dira.

Ni txikitatik nahiko gizona izan naiz, gizona ez, baina argala ere ez naiz inoiz izan, ulertzen didazue. Hasieran nik nuen konplexu hau kentzeko kirola egiten hasi nintzen, egunero korri egitera joaten nintzen, 30 minutu gelditu gabe egiten nituen eta gero polikiroldegira joan, pizinan 30 largo egin, dutxatu eta etxera. Etxean bapo afaldu eta ohera. Hurrengo egunean pisatzera joan eta berdin edo batzuetan gehiago ere pisatzen nuen, desilusioak jota, ikastolara joan liburu tartean burua sartu eta han egoten nintzen lehenengo hiru klasetan. Tirrinak jo eta jolasgaraiko ordua iritsi zela konturatu nintzen, nire gelakideek beraien bokadiloak atera eta hantxe hasten ziren zanpa-zanpa dena jaten, nik amak jarritako sagarrari begiratu eta amorru betez zakarrontzira botatzen nuen, hasieran horrela hasi nintzen, gosaria zakarrontzira botatzen. Gero bazkaltzeko orduan etxera joan eta ama erraz engainatzen nuen. Ama ez dut goserik, oraintxen jan berria dut gosaria, edo beste batzuetan, gaur Jon, Unai,... edo beste norbaiten, urtebetetzeak izan dira eta gauza pila ekarri ditu. Amak ez zidan ezer jan gabe uzten baina yogur bat edo horrelako zerbait jan eta berriz ikastolara itzultzen nintzen. Lehendabiziko bi asteetan izugarritzko gosea sumatzen nuen, baina nire buruari gogor egiten nion, nahi nuena lortzeko. Pasatzen ari zitzaidan guztia pasa behar nuen. Ez afaltzea ere ez zen oso zaila izaten. Ni etxera 19:30 aldera iristen nintzen, gurasoak lanean zeuden eta anaia lagunekin auskalo non. Amak afaria mahai gainean uzten zidan egunero, nik afari hartu, kalera atera eta ondoko zakurrari ematen nion, zakurrak gustura hartzen zuen nik emandakoa, gero platerak garbitu, frutaren bat jan eta gurasoak etortzerako pijama jantzita eta ohean, gurasoak gaueko 22:30 aldera etortzen ziren eta goizean 7etan jaiki behar nuenez ohean egoten nintzen.

Egunetik egunera argalago nengoen, baina nik nire burua gizona ikusten nuen, ispiluan begiratu eta gizen eta itsusi ikusten nintzen. Nire gurasoak egunero ikusten nindutenez, eta ondo jaten nuela uste zutenez, ez

ziren konturatu argaldu egin nintzenik, baina laagunak egunero esaten zidaten, neska, egunetik egunera argalago ikusten zaitut, baina nik, bai zera zuen irudimena izango da. Nire buruak gizona nengoela esaten zidan eta nahiz eta ondoko guztiak argantzen ari nintzela esan, nik nire buruari egiten nion kasu.

Gurasoak ere poliki-poliki guztiaz ohartzen joan ziren, behin gauero bezala afaria zakurrari bota nion, baina dirudienez goserik ez zuen izango eta nire gurasoak etorri zirenean oraindik kan gabea zuen.

Hurrengo goizean esnatu nintzenean, amak izugarritzko sermoia bota zidan eta burua makur nuela joan nintzen ikastolara.

Jada, 52 kilotatik 40 kilotara jaitsi nintzen, amak behartu egiten ninduen jatera, nik ezin nuen, ez zitzaidan sartzen, ohituta nengoen egun osoa fruta ale batekin egoten. Nire gurasoen hurrengo pausoa medikuarengana joatea izan zen, baina nik ez nuen onartu nahi gaixorik nintzela, niretzat gizona egoten jarraitzen nuen. Azkenean gurasoek lortu zuten nahizutena, ni medikuarengana joatea. Han dena garbi utzi ziguten, anorexia nuen, baina hau sendatzeko lehehengo pausoa nik nahi izatea zen, eta nik nahi ez nuenez, sikologoarengana joateko ezan ziguten. Asteaz 3 aldiz joaten nintzen sikologoarengana, baina nire iritzia ez zen aldatu, gizona nengoen eta kitto. Ni gero eta argalago nengoen, nire lagun guztiek errukia zidaten.

Sikologoak behin eta berriz esaten zidan, begiratu zaitetz ispiluan mesedez. Ni begiratzen nintzen, baina niretzat gizona nengoen. Egun batean nire bizitzak buelta eman zuen sikologoak hau esandakoan "Bizitza motza da berez, ez ezazu motzagoa egin"

Nire belarriek hau entzun zutenean, esaldihori benetan erreala zela konturatu nintzen, eta sendatu nahi nuela esan nion. Berak hau entzundakoan irribarre ahoan zuela hau esan zidan "Oso ondo Iraia pauso garrantzitsuena eman duzu".

Egun horretatik aurrera, gauzak hobetuz joan ziren, ni jaten hasi nintzen, poliki-poliki, baina aurreratuz. Poliki lehenagoko pisura iritsi nintzen.

Orain 52 kilo ditut eta oso gustura nago. Denei esaten dizuet:

**"BIZITZA MOTZA DA BEREZ,
EZ EZAZUE MOTZAGOA EGIN"**

**Aintzane Zufiria
DBH-3B**



ESKARNE IRASTORZA IKASTOLAN

Elikadura tailerra aukeratu duten DBH I. Mailako ikasleek HITZALDIA izan dute NUTRIZIO eta ELIKAGAIEN gaiaren inguruan ESKARNEekin.



KOPLA HANDIA

Kopla handia
Gaia ekosistema
Doinua: axuri beltza

Ekosistema gaia dugula
hartu ditugu datuak.
Landareak hementxe ditugu
azertzeko prestatuak.

Animadiak ere ditugu
ekosisteman sartuak.
Oso politak direla eta
marrazkian aurkeztuak.

Elika-kate polita dugu
buka ezina delarik.
Batak bestea jan duelarik.
bat gutxiago bizirik.

Amaia eta Naroa
5.maila



BERTSOA

Nik ikusi zintudan
eta zuk ikusi ninduzun
orduaz izan zen
bi bihotzek batera
taupaka egin zuten
hune goxo hura
eta orduan ikusi nuen
gure artekoa oso berezia zela
eta bata bestearentzat ginela

Momentu hartantxe
izarretan
mendietan
ispiluetan
toki guztietan
zu ikusten zintudan
zure islada ikusten nuen
toki guztietan
eta orduan ikusi nuen
gure artekoa oso berezia zela
eta bata bestearentzat ginela

Baina orain
ez dakit ezer
eta faltan botatzen zaitut
eta orduan ikusi dut
gure artekoa berezia dela
eta bata bestearentzat ginela

EGILEA: MIKEL LOIARTE
D.B.H.3



BERTSO ESKOLA, PLAZARA



Maiatz-ekainak arrimatu ahala, jakina izaten da: Lexoti jaialdia eta Gipuzkoako Eskolarteko txapelketa. Eta joan dira bai bata eta bai bestea. Maiatzaren 10ean egin genuen Lexoti jaialdia, udaletxeko areto nagusian. 200 entzule bildu genituen, 5. eta 6. mailakoak, eta DBH I eta 2koak. Bertsoarako zazpi lagun animatu zitzaizkigun, eta ederki jardun zuten: Gorka Agirrezabala, Maddi Suarez, Xabi Galdos, Alaia Martin, Nerea Aizpuru, Iker Urdanpilleta eta Karmele Mitxelena. Bat-bateko bertso saioaren ondotik, Lexoti Bertso-paper lehiaketako sariak banatu genituen. Alaia Martinen, Maddi Suarezzen eta Ekiñe Aristizabalen sortak bereizi genituen, eta baita entzun ere; bertso jartzailerik apartak dira!



Gisa bera, Eskolartekoa ere etorri da; bat-bateko saiorako, Oiartzundik parte-hartzaile franko eraman ditugu aurten: ttikietan bi talde eta handietan lau lagun. Bertso-paperetan, berriz, berrogeita hamar ikaslek parte hartu dute, eta batek baino gehiagok utzi du arrastoa.



Bat-bateko saioan, ttikiek Añorgan jokatu zuten lehen kanporaketa: han ziren, batetik, Jon Olaziregi, Iker Urdanpilleta eta Manu Goiogana irundarra (Oiartzungo Udal Bertso Eskolan ari da), eta, bestetik, Alaia Martin, Maddi Suarez eta Karmele Mitxelena. Saio txukuna egin zuten oso, eta hiru neskek osaturiko taldea finala jokatzeko sailkatu zen; beste hirurak ate-atean geratu ziren.

Finala Beasainen jokatu zen, ekainaren 2an, eta, urduritasunak urduritasun, gure neskak lehiakide duinak izan ziren. Hernani-Añorgakoek irabazi zuten, eta horiei ere zorionak. Haurtzaroko ikasleak, hala ere, ez ziren etorri saririk gabe; bertso-paperetan, DBH lehen zikloko sailean, Ekiñe Aristizabalek

irabazi zuen, bi habanera ederrekin, eta pozik egin genuen Beasaindik buelta.

Handietan parte hartu duten lau mutilek Elgoibarrera joan behar izan zuten kantatzera, eta ez zen alfer bidaia izan. Ander Lizarralde, Urritz Olaziregik, Gorka Agirrezabalak eta Xabi Galdosek erakutsi zieten elgoibartar eta gainerakoei Oiartzunen badi-rela bertsolariak.

Ibili gara, beraz, bazterrak nahasten han eta hemen. Orain uda dator, eta ikusiko gaituzue Altzi-barko jaietan, Xanistebanetan...

Hurrengo urtea arte guztiei, ongi bizi.




GIPUZKOAKO ESKOLARTEKO XXI. BERTSOLARI TXAPELKETA

Ekiñe Aristizabal, Gipuzkoako txapelduna, lagunez inguraturik, Añorgan txapelketa-ko bertsoak idazten. Bertso horiekin irabazi du Gipuzkoako txapela.

ZORIONAK!



GERO ETA GEHIAGO MAITE DUT NATURAREKIKO HARREMANA



Naturaren altxorretik
ikusi eta ikasi
erakutsi nahi diguna
ikusi eta ikasi
nahiz ta gizakiak duen
beretzat hainbat malezi
guk emandako tratua
inolaz ez du merezi
orain ez gaitzen hasi
dakigunaren ihesi
bera errespetatzeko
denok behar dugu hezi
gu naturaren sehaskan
guztiok baikara hazi
ama natura maitatuz
denok zoriontsu bizi.

Naturari egin diot
bere biziko promesa
baina betetzeko ez da
inolaz erreza
itsasoaren gazia
ta errekek duten geza
hortaz mundua ohartu
eta errespetatu beza
kutsadura gabe bizi
hori da nire ametsa
gure gizarteak hori
benetan lortu baleza
naturari eskertzeko
orain nik baitaukat presa
berak eskainia digun
bizia eta babesa.



TREN MUSEORA BIXITA

Tren zuma bera pan ginen an ogi tarteka
 pan ginen eta zuma batetik Azpeitira autobusez
 pan ginen. Eta an tren museora sartu
 ginen eta txartela eman ziguten. Eta an neska
 batek dena kontatu zigun tren museora.
 Zuen bidea erakutsi zigun neskek. Korrilak
 nola aldatzen ziren erakutsi zigun. Trenak
 biela nola zen. Lurrinezko tren ikusi genuen
 garo garolezko tren ikusi genuen elektriko ere
 bari eta tranbiak ere bai. Trenbide oninean
 ibiltzen den bizkleta zen eta gauran ibiltzen
 zen. Eta motorrak martxan garri zituen talde-
 an. Eta Bilboko tren berria ikusi genuen.
 Eta asfaltiko trenan ibili ginen denak.
 Eta oso-oso ongi pasa genuen.



2. maila



UFF! ESTATISTIKA: INKESTAK HAURTZARON

Guri heltzen zaigun informazio estatistikoa (taulak, grafikoak...) prozesu luze baten emaitza da. DBH pauso hauei jarraituz, azterketa estatistiko batzuk egin ditugu. Horretarako aurretik aztertu beharreko aukeratu dugu, datu bilketa egin dugu galdeketa baten bidez. Jasotako datuak ordenatu eta grafikoak ondoren, zenbait parametro estatistiko kalkulatu ditugu.

Hona hemen egindako lan horien adibide txiki bat.

I.- BA AL DUZU ORDENAGAILURIK?

POPULAZIOA: D.B.H. 3. MAILA

LAGINA: 53 IKASLE

ALDAGAIA: ORDENAGAILUA EDUKI BAI ALA EZ

MOTA: KOALITATIBOA

DATUAK: 42, 12

ORDENAGAILUA DUTENAK



KOMENTARIOA: Gehiengo handi batek badu ordenagailua gure mailan.

DATUAK:	fi	FI	fi/n (%)	FI/n (%)
BAI	42	42	77,777778	77,777778
EZ	12	54	22,222222	100
GUZTIRA	n=54	54	100	100



AFGANISTANGO EMAKUMEEKIN ELKARTASUNEAN



DBH 4. mailako ikasleak garen momentu honetan, gizarte zientzietako arloan, gai bati buruzko lan bat egin behar genuen. Guk gaur egun komunikabideetan gori-gorian dagoen Afganistango emakumeen egoera krudela berriz ere salatzea erabaki dugu. 1992. urtean aginte islamdarra ezarri zenetik, bertako gobernuak emakumeen kontrako gerra bat egiten ari da. Bertako emakumeei izugarritzko debeku pila inposatzen zaizkie: "burgoa" eramatea (beren gorputz osoa estaltzeko erabiltzen duten jantzia), kalera nahitaez gizonarekin atera beharra, ezin medikura joan, ezin ikasi ezta lanik egin ere... eta noski, hau guztia betetzen ez badute, jendearen aurrean harrikadak jasotzen dituzte, makilaz jotzen dituzte... eta tratu txarrak jasotzen badituzte, "oso ondo egina!!" erantzuten dute gainontzekoek.

Honetaz guztiaz eta gaur egungo emakumeen egoeraz mintzatzeko, Txaro Arteagarekin elkarriz-

keta bat egin genuen. Honen ondoren, guztia oso argi geratu da: emakumeen eta gizonezkoen berdintasunaren alde borrokatu beharra dago, eta gehiago, Afganistango emakumeengatik.

Borroka honetan parte hartzeko gauza handirik guk ezin egin badezakegu ere, zenbait pertsona hasiak dira e-mail bidezko mezuak bidaltzen, eta jasotzen duen hartzaile bakoitzak, bere sinaduraren bitartez, bere dolua azaltzen du.

Besterik gabe, honen alderdi etikoa harrapatu nahian gure iritzi edo erreflexioa eman nahi genuen, baina zoritxarrez, hain argia da bizi duten egoera larri, krudel, negargarri eta bihotzgabea... eta, bestalde, gure esku ia ezer ez dagoenez, hori aldatu dadin, inpotentzia galanta sentitzen dugu. Beren omenez erreflexio bat egitea eskertuko genizuke.




SEMAFOROA: DBHKO 4. MAILAKO PRENTSA TAILERREKO IKASLEEN UZTA

Ikasturte osoan prentsa tailerra abian izan da Haurtzaron. 4. DBHko 19 neska-mutilek hartu dute bertan esku. Prentsa idatziaren nondik norako askoren berri izan dute bertan. Batetik, albisteak idazteko teoria eta teknikak zein diren aztertu dute. Bestetik, egunkari eta aldizkariak irakurtzen ikasi dute, betiere irizpide kritikoak erabiltzeko ahaleginak eginez.

Dena ez da, hala ere, teoria izan. Praktikan kazetari bihurtzeko aukera ere izan dute, eta *Semaforoa* aldizkaria argitaratu dute. Elkarrizketa benetakoak, asmatuak, albisteak, protestak... Hainbat kontu bildu dituzte bertan, eta beren jardunaren emaitza DBHko ikasle guztien artean banatu dute. Hutsetik sortutako aldizkaria izan da *Semaforoa*, eta horrek balore berezia eman dio. Izan ere, arian-arian, aldizkari bat egiteko zein urrats egin behar izaten diren ikusi dute ikasleek. Ariketa gisa, bederen.

SEMAFOROA

... bizitzan kolore guztiak ezberdinak direlako



2001eko aurreneko
hilabeteetan ariketa gisa egina

PRENTSA TAILERRA

2001. urteko apirila, Haurtzaro Ikastola, Oiartzun
4, DBH. Prentsa tailerra



JOKIN GARCIA, Haurtzaro Ikastolako lehendakaria

- *Zentro- eta herri-ikuspegiak gainditu eta eskualdera eta erakundeetara irekitzeko gai izan gara*
- *Gurasoen parte-hartzea: jokoan dago ikastolaren nortasuna*



Ba al da inor gure solaskidea ezagutzen ez duenik? Seguru ezetz, eta gaztea eta langabezian egona bada, are eta gutxiago. Baina Jokin Garcia gure herriko gizarte-bizitzan ongi errotua bada ere, ez da Oiartzunen jaioa, donostiarra dugu, Intxaurrendokoa, hain zuzen.

Ikasketen aldetik irakaslea da, baina bere irakaspenak heziketa arautuen bideetatik harago doaz, eta dakien horrekin langabeziari buelta eman nahian dihardu Oarsoalde mailan azken 15 urteetan. Bere lana da lanik gabe geratu direnak beste lanbideetarako prestatzea, lanbide berriak irakastea.

Tarte 'libreetan' ere –geratzen ote zaio horrelakorik!– hezkuntzatik atera gabe jardun du lehendakari lanetan azken urteotan... Haurtzaro Ikastolako lehendakari izatea etsairik gaiztoenari ere opa izango ez geniokeen 'oparia' dela aitortu beharrean bagara ere.

Bada, horretan jardun du Jokinek azken 3 urte eta erdian. Ez da harritzeko, hontaz, elkarriketa bera ere ikastola-komunitatearen esker onezko giroan joan dela aitortzea. Hasi ere MILA ESKER batekin hasi nahi dugu.

Bete duen lanak ematen duen eskarmentuaz baliatu nahirik, berarengana jo dugu gurasooi eta irakurleei, oro har, eskaini diezazkigukeen iritzi aberasgarrien bila. Eta etorri ere borondaterik onenaz etorri zaigu, laneko betebeharrak amaitu eta familiakoei ematekotan zela tartetxo bat eskaintzera.

Txinpart: Gogoan al duzu orain lau urte kargua hartzerakoan zeure baitan izan zenituen bizipenak?

Jokin: Sentipen nagusia, kezka, dudarik gabe. Kezka, gauza izango ote nintzen karguaren egitekoiei erantzuteko. Izan ere, hainbat alorretako gaiei –pedagogia, edota ekonomia, esate baterako– erantzun behar baitzaie postu horretatik, eta neure burua aski mugatua ikusten nuen. Eskerrak lan talde bikainak topatu ditudala ikastolan. Horiei nire eskerrik beroenak.

T.: Orain, kargua uztean, zein da nabari duzun sentipen nagusia?

J.: Ikastola handitzen ari dela (jadanik 655 ikasletara iritsi gara)

eta aurretik jaso ditugun zamak utzi baino lehenago zama berriak hartzera jo beharko dugula. Sentipen gazi-gozoa beraz: aurrera goaz, baina... aurrera joateak berekin darama pauso berriek berezkoa duten zalantza-kutsua.

T.: Konparatzerik ba ote dago une hartan Haurtzaro Ikastolak zituen eta gaur dituen erronkak?

J.: Orain lau urte matrikulazio berrien kopurua jaitsi egin zen, eta une hartako erronka jendea erakartzea, jendea geureganatzea, gure eskaintzaz konbentzitzea zen. Hori lortu dugula esan liteke, eta berrikiago erantzuten hasi garen erronka ikastolaren eskaintza zabaltzea izan da. Alde batetik, 0-3 urte bitarteko adina: premia honi Partzuergotik eran-

tzun diogu haur hezkuntza oso-tua eskainiz. Eta bestetik, 14-18 urteen tarte: gure erantzuna, hemen, Oiartzo Institutuaren bidez ematen ari gara.

T.: Eta urte hauetan Haurtzaro Ikastola bera asko aldatu al da? Zertan?

J.: Nire ustez, oraintxe aipatu dizkizudan gauzetan: Oiartzo eta Partzuergoa. Lehen, Haurtzaro herrian kokatua zegoen bakarrik, udalerrira mugatua, nolabait esateko. Gaur, Orereta Ikastolarekin batera sortu dugun Oiartzo Institutuaren bidez, eskualdera zabaldua dago. Bestalde, Partzuergoa sortuz, ikastetxe-hesiak gainditu eta udalerriko erakundeekin lan egiteko prestutasuna erakutsi du ikastolak. Biderik egokiena, dudarik gabe; itxiturak



gaindituz bakarrik esku-ratuko baitugu etorkizuna: eskualde eta erakunde mailan elkarlana bideratuz, alegia. Alde horretatik, zentro-ikuspegia gainditzeko gauza garela frogatu dugu, eta horrek inork uka ezingo digun gaitasuna ematen digu.

T.: Urte hauetan izan duzun pozik handiena?


J.: Hainbat daude, baina hitz gutxitan batzuk bederen azaltzeko, eskolaz kanpoko ekintzak direla esango nuke: inauteriak, pilota-eskola, bertso-eskola, guraso-eskola, egin diren omenaldiak, etab. Baina ez ekintza horiek zer-nola atera diren (bide batez, esan dezadan oso-oso ongi atera ohi direla!), horiek moldatzen ibili ohi den jende multzo zabalagatik baizik: guraso-ikasle-irakasle... direla. Badago egitekorik, baina egin dena ere asko izan da.

T.: Eta unerik gogorrena?

J.: Bitxia badirudi ere, heriotza-rekin lotutako bi datozkit burura: Julian Bergaretxe beste guraso batzuekin batera Haurtzaro sortu eta lehen lehendakari izan zenaren heriotza eta Usue Joanesena. Gainditzen ari gara jada, baina irakasle-taldea oso ukitua geratu zen Usueren heriotza zela eta.

T.: Euskal Herria-Ikastola: nola ikusten duzu bien arteko lotura etorkizunera begira?

J.: Ikastolak, politika mailako ideologia guztien gainetik, proiektu integratzaile bati eusten asmatu du: denei dago ireki, baina Euskal



Herriko eskola nazionala izateko bokazioari uko egin gabe. Alde horretatik, Euskal Herriko eskola izateko bokazioa du. Baina, bestalde, ez dio uko egin nahi lege aldetik eskola 'pribatu' izateak dakartzkion zenbait eskuduntza eta abantailari ere: gurasoen hitzak duen pisua gestioan, pedagogi ereduan. Bi gauzak uztartu nahi ditugu.

T.: Zer deritzozu Haurtzaro Ikastolako gurasoen esku-hartzeari?

J.: Ni sartu nintzenean, nahiko bajua zen. Gaur egun -hobetu beharrik badagoen arren- askoz handiagoa da, eta ikastolako funtzionamendu-alor guztietan: lehen aipatutako eskolaz kanpoko hain ekintza aberatsak. Zerbait aipatzekotan hobetzeko, gurasoen pedagogi jarraipenarena esango nuke. Areago, nik uste, horrek izan beharko lukeela ikastola beste eskoletatik bereizi

beharko lukeen ezaugarria. Parte-hartze hori bideratzea lortuko bagenu, egundoko pausoa emango genuke ikastola bereizten duen ezaugarri funtsezko batean; agian, funtsezkoenean.

Mila esker, Jokin, urteotan eskaini diguzun zerbitzuengatik eta zure iritzian emanez eman diguzunagatik. Badakigu ez dela azkena izango eta alboan izango zaitugula aurrerantzean ere. Horrenbestez, ez adiorik! Nahi duzun arte. Laster arte.

TXINPARTAK

Beste elkarrizketetan bezala, Jokinekin ere 'aurreko koadroetan' aritu gara eta dejada batzuk bota dizkiogu txokora. Hona nondik atera zaigun.

- 1. Eskola publikoa-eskola pribatua:** Hori baino gehiago, Euskal Herri osoko eskola
- 2. Lanbidea:** Gazteen kezka
- 3. Andereño:** Ikastolaren zutabeetako bat
- 4. Langabezia:** Sistemak ezartzen digun prezio latza
- 5. Tituluduna:** Behar-beharrezkoak
- 6. Konpetentzia:** Lehia baino gehiago, gai izatea
- 7. Hezi:** Bizitzarako hezi.
- 8. Ikasi:** Gero eta gehiago eta zehazkiago tokatzen zaigu
- 9. Jakintsua:** Ikasi dituenak bizitzen dakiena
- 10. Geroa:** Gaurdanik egiten ari gara



HAURRA ETA ADISKIDANTZA (6-11 urte)

A din-tarte honetako haurra aldatu eta aldatu, lorpen berriak eskuratu, gaitasun berriez jabetu... egiten ari da.

Txikia zenean, besteren menpe edo laguntza-zen beharrean zen edozertarako. 6-7 urtetik aurrera, berriz, gero eta gauzago dela nabari du bizitzarako (eskolarako, lagunarterako, etxean laguntzeko, etab.).

Izenburuan aipatu dugun urte-tarte horretan, lehenago edo geroago, pausoz pauso eta etengabe aldaketa hau gauzatzen ari da eta sakontzen urtetik urtera, adoleszentziako autonomia eklosio nagusiraino.



Besteekiko harremanetan ere beste horrenbeste.

Harremanetako aldaketa horren adierazgarri, esate baterako, gurasoengandiko menpekotasun-loturak lasaitzen, askatzen eta eteten joaten dira pixkana-pixkana. Eta behin adin honetara iristen direnean, iritziak, jarduerak, gustuak... kontuan hartzea bilatzen dute gero eta gehiago.

Ezagutzera iristen diren oro konparatzen dute: pertsonak, jokamoldeak, jarraibideak... beren-berena izango den hautapena egin ahal izateko, azken batean.

Jarrera hori dela eta, galdezka egon ohi dira etengabe. Zergatiei buruzko galderen adina dela esan ohi da: munduaren funtzionamendu fisikoa dela, sexua dela, edo guraso bananduak, edo adopzioa edo mundu zabalean ikusten duten hainbat jokamolde nahiz gertaera direla, guztiaren jakin-minez ageri ohi dira orain, edo lehen baino askoz gehiago, behintzat.

Adiskideei dagokienez ere berplanteatze-, berraztertze-, berrantolatze- eta berkokatze-aldi bat bizi dute. Lehen lagunarteko harremanetan ia pisurik ez zuten gaiak berebiziko garrantzia hartzen dute.

Horietako bat leialtasuna izaten da. Leialtasuna, lagunaren ahotik ateratako ezkutupeko gauzak ez zabaltzeko. Edo ez dagozkion salaketetan ez sartzeko. Egia esan, neskatoak dira hau guztia gehien baloratzen dutenak. Mutikoak gehiago baloratzen dituzte gaitasun fisikoak, eta horiekin identifikatzera jotzen dute. Agian horregatik, adin honetan lagunarte hori oraindik mutilak mutilekin eta neskak neskekin osatua ikusi ahalko dugu.

Adin honetan, halaber, liderrak sortzen dira lagun-taldean.

Mota askotako liderrak: liderrak taldea elkartzeko, liderrak lagunartea lanera nahiz jolasera bideratzeko... edo liderrak bihurtekerietarako ere. Liderrok aldatuz joaten dira aldian aldian, neska-mutikoak lagunartean bizi duten egoeraren arabera. Seinale talde-harremana sano eratzen ari dela.

Eta gurasook? Errezeta magikorik ez dago. Aipatu beharrekoa da, alabaina, jokabidea markatuko duen hel-duon jarrera bat: errespetua.

Errespetuz bizitzeko unea eta bizipen-fasea da. Hurrak orain identifikazio-unea lantzen ari dira eta kome-nigarria litzateke gure aldetik une hori bete-betea bizitzen uztea: begirunez eta seme-alabengandik hurbil, fisikoki zein afektiboki.

Horra gurasook ikasteko arte bat: gure semea edo alaba 'bera' izan dadila askatasunez. Hau da, ez dadila geure izaeraren eta jokaeraren 'klon' errepikatua atera. Eta, askatasun-giroarekin batera, ondoan hurbiltasunez egoten jakin, ematen dituen pausoetan konfiantza izanez eta agertuz.

Guraso-eskolan jasoa



Juan Kruz Igerabiderekin elkarrizketa

BERE BIZITZARI BURUZ:

1. Nongoa zara?

Adunakoa naiz

2. Seme alabarik baduzu?

Bai, alaba bat eta seme bat

3. Beraientzat noizbait ipuinik idatzi al duzu?

Bai, baina batez ere kontatu egin dizkiet.

4. Zer izan nahi zenuen txikitan?

Lehenik, kamioilari edo apaiza izan nahi nuen. Gero, musikari

5. Zer egiten duzu denbora librean?

Irakurri, musika entzun eta mendian ibili.

BAT-BATEKOA:

6. Erreala ala athletic?

Erreala

7. Pizza ala entsalada?

Entsalada

8. Neskak; lle horikoak ala beltzaranak?

lle horikoak

9. Irratia ala telebista?

Irratia

10. Gorbata ala pajarita?

Batere ez

IDAZLE BEZALA

11. Zer nahiago duzu idazteko, ipuina ala poesia?

Sentimendu bat adierazteko, poesia nahiago dut, baina istorio bat kontatzeko, ipuina erabiltzen dut

12. Nondik lortzen dituzu ideiak idazteko garaian?

Beste liburuetatik, oroitzapenetatik eta bizitzan ikusten ditudan gauzetatik.

13. Erraza al da liburua idaztea?

Idaztea erraza da, baina ondo idaztea oso zaila.

14. Orain libururen bat idazte ari al zara?

Bai, munduko ibaiei buruzko liburu bat idazten ari nahiz orain



15. Zein da gehien saldu duzun liburua?

La isla de la enanita barbuda da gehien saldu dudana liburua

16. Norentzat idazten duzu liburu gehiago: txikientzat ala handientzat?

Txikientzat

17. Zenbat denbora behar duzu ipuina idazteko? Eta poesia?

Ipuinekin denbora gehiago pasatzen dut. Poesia bat-batean ateratzen zait.

18. Zer hasi zinen idazten lenago poesia ala narrazioa?

Poesia. Narrazioak euskara irakasten nuenean gelan asmatzen nituen irakasleentzat.

19. Zein da argitaratu duzun azken liburua?

Jonas eta iratzargailua

20. Noiz arte izango zara idazle?

Auskalo. Hil artean.

21. Zein liburu mota gustatzen zaizu?

Nobela, ipuina eta poesia. Poesia eta ipuin laburrak batez ere.

22. Irakurtzea gustukoa al duzu?

Bai, oso txikitandik gainera.

23. Gazteleraz ere idazten al dituzu liburuak?

Bai. Baina normalean euskaraz idatzitako liburuak gaztelerara itzultzen ditut.




THE DRAGON

 One day one boy and one girl went to one castle and they went saw one dragon and the dragon saw the girl and the boy and took the net and I know it on the boy and the girl later on came another girl and I told to	 Later on the girl saw one cake and one boy so she took the torch and with the torch in eye and the dragon fall.
 The girl netted the net and the girl and the boy got out later the girl took the net then to the dragon.	 Finally the two girls and the boy were very happy and went home.

LABYRPEN TENTATZAILEA

- Izenburua: Txirri, Mirri eta Txiribiton igeltsero.
- Egilea: TAntton Kazabon.
- Argitaletxea: Elkar.



• Laburpena:

Txirri, Mirri eta Txiribitonek bizikleta bana nahi lukete, baina dirurik ez dute eta igeltsero lanean hasia erabakitzen dute.

Hilabete jo ta ke aritu ondoren, sobre batean jaso dute soldata, eta ba al dakizue zer zegoen sobrea?

**Jakiteko irakurri,
gainera liburua
oso erraz irakurtzen da!!**

ANIMO, LAGUN!!!



kutxa

zuri esker
gracias a ti



"la Caixa"

"Oiartzuarren
zerbitzura gaude"

Mendiburu kalea 2 • © 943 49 47 19



CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA



ETXE ONENAK, S.A.

Bizitegi Sustapena

MENDIBIL BERRI kalitate handiko etxeak eraikitzen

Plaza de Guipúzcoa 2-3^a dcha. • 20004 Donostia • © 943 42 95 21 • Fax 943 43 02 19



Biok ETXEGINTZA S.L.

Karaitza etxea • Garmendi bidea 3 • 20180 OIARTZUN
© 943 49 25 01 • Fax 943 49 25 01

construcciones ARABOLAZA S.L.

Berriztatze lanak

Casa Antsillas Berri (Gurutze) • 20180 OIARTZUN
© 943 491 365 • Postakutxa 16 • Fax 943 493 772



Hotel LINTZIRIN s.a.



© 943 49 20 00 • Fax 943 49 25 04

CTRA. MADRID - IRUN KM. 469 • e-mail: lintziri@adegi.es
OIARTZUN - GIPUZKOA



TAJO

Industrias Tajo, S. Coop.



MONDRAGON
COMPONENTES

NIESSEN

ABB Niessen, S.A.

Polígono de Aranguren s/n • 20180 OIARTZUN
© 943 260 101 • Fax 943 260 250



Alcampo

OIARTZUN

Zure Alcampo, egunero hobetuz



AMENABAR

AENOR



Empresa
Registrada

ER-424/2/96



Ederki, s.l.

Ihurrita Bidea 13 - 6. lokala • 20180 OIARTZUN • © 943 49 16 41



OIARTZUN LANTEGIAK, S.L.

Konponketak, Erakusketa, Salmetak eta Karrozeria

Ihurrita Bidea 13 - 1. lokala • 20180 OIARTZUN • © eta faxa: 943 49 18 48 - 943 49 41 36



Bianditz, C.B.

Txapa eta pintaketa
Diagnosia
Salmetak
Mekanika

Altzibar auzoa - Artikutza Bidea z/g • 20180 OIARTZUN
© 943 49 08 46 - 943 49 12 23 • Faxa: 943 49 08 46



HAURTZARO Ikastola